

TITIN III.A

«Gaizki jokatzegatik kritikatzea, horrek kezkatuko ninduke»

22 urte profesioaletan (Asegarcerekin lehenengo, Asperekin 1998tik), Lau T'erdiko txapela, Binakakoan beste lau garaipen eta makina bat bizipen frontoietan. 45 urterekin, pilota utziko du Triciokoak (Errioxa). Ikuskizuna maite duen jokalaria eta aho bilorik gabeko gizona, ez du inor epel uzten Augusto Ibañez Sacristan *Titin III.ak*.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Zein egoeratan utziko dituzu frontoiak?

Fisikoki eta mentalki ongi, ezin naiz kexatu. Nire ibilbidean lesio gutxi izan ditut eta aurten ere berdin, arazorik gabe ari naiz partiduak jokatzen eta egia esan, asko ari naiz gozatzen. Erretiro urte hau oso pozgarria izaten ari da eta geroan pentsatzeko aukera izango dut aurrerago, orain uneaz disfrutatzen ari naiz.

22 urte profesioaletan. Nola eta zertan eboluzionatu du pilotak?

Pixkanaka eboluzionatu du, kirol guztiek eta oro har bizitzak bezala. Kirol tradizionala da eta joko-arauak ez dira ia ezer aldatu, baina bai frontoiak, materiala, kirolarion prestakuntza...

Materiala aipatu duzu eta sarri polemika iturri izaten dira pilotak; bizkortu egin dira urteotan. Onerako ala txarrerako?

Lehen pilotak sebo beltza zuen eta gehiago irauten zuen, orain pilota zuriak dira, makinaz eginak, eta ezberdinak dira, bai, baina ez onerako ez txarrerako: hainbatetan mesede egingo die batzuei eta alderantziz; materialak denon ahotan jarraituko du eta normala da, jokoaren oinarrietako bat delako pilota.

Eta giroa, asko aldatu al da?

Frontoietako giroa beti izan da bikaina. Ikusten dudana da gazte gehiago dagoela pilotaren inguruan, neskak nahiz mutilak. Astebu-

ASPEPELOTA.COM



“Irabaztea edo galtzea baino gehiago da kirola, eta ikuskizuna funtsezkoa da. Ikusleek ez badute gozatzen, pilotariak berak ez badu gozatzen, hilda dago pilota”.

ruan pilota partidu bat ikustera joateko ohitura zabaldu da gazteen artean eta gustura joaten da bat frontoira, kirol guztien artean afiziorik onena pilotak duelako, nire ustez.

Eskuzko jokoari ikusgarritasun handiagoa eman zion belaunaldiko pilotarietako bat zara...

Ahalik eta ongien egiten saiatu naiz beti, pilotan jokatzeke eta pilota ulertzeko dudan modua galdu gabe. 1992ko Olinpiadetatik aurrera, Asegarce ere jaio zelarik, aldatetako izan ziren pilotan orokorrean eta hor egotea egokitu zitzaidan. Pilotaren kontzeptua zertxobait aldatu zen, pilotari profesionalen irudia sendotu eta konfiantza eman ziguten, baita hedabideetan oihartzuna ere, eta testuinguru horretan, botera beharrean airez jokatzeke joera handiagoa genuen aurrelari batzuek debutatu genuen. Iraultza txiki bat eman zen, norabide guztietan.

Ikusgarri izan behar du pilotak?

Bai, kirolak orokorrean izan behar du ikusgarri. Jendeak, batek edo besteak irabaztea nahi izateaz gain, ondo pasa nahi du, ikuskizun bila doa. Denoi gustatzen zaigu irabaztea, baina irabaztea edo galtzea baino gehiago da kirola, eta ikuskizuna funtsezkoa da. Ikusleek ez badute gozatzen, pilotariak berak ez badu gozatzen, hilda dago pilota.

Irabazteko arriskatu egin behar da?

Bai, bizitzako arlo guztietan arriskatu behar da, une jakinetan. Pilota ulertzeko eta tantoak egiteko modua da, nire kasuan. Nik ez daukat jo izugarria eta txapa gaina eta ertzak bilatu ditut tantoa egin ahal izateko. Arriskua duten jokaldiak dira, baina horretarako gaude eguneroko entrenatzen.

Zeintzuk dituzu partidurik gogoangarrienak?

Debutaren eguna eta erretiratzeko naizen eguna izango dira niretzat garrantzitsuenak eta ahaztuko ez ditudanak.

Baina badira ikusleen gogoan geratu diren beste partidu batzuk. Retegi II.aren aurka 1997an jokaturiko Lau T'erdiko finala, esaterako [21-17 irabazten joan ostean, norgehiagoka galdu egin zuen Titinek].

Tira, nik 2007koa hobeto gogoratzen dut, kar, kar, kar [urte horretan, Lau T'erdiko finala irabazi zuen Titinek, Abel Barriolaren kontra]. Partidu gogoangarriak dira, egindako jokoagatik baino gehiago, ekarri zuten guztiagatik eta sortu zen giroagatik. Ezinezkoa zait finaletan bizitzen dena deskribatzea, baina izugarria da, eta zaila da horietako bat aukeratzea.

2007ko final hura gainera bereziki hunkigarria izan zen zuretzat...

Bai, astebete lehenago aita hil zen eta egun gogorrak izan ziren emozionalki, ez nekien jokatu edo ez, baina Lau T'erdiko aurreko bi finalak galdu ostean azkenean irabazi eta aitari eskaini ahal izan nion txapela. Egun garrantzitsuenetakoa bat izan zen.

Pertsonaia polemikoa zara. laz bertan, Bikotekako txapelketan kanporatua izan ondoren piloten aukeraketaren aurka mintzatu zinen eta enpresen atzeko interesak salatzen zenuen.

Inori ez zaigu galtzea gustatzen eta kalte egin dizutela iruditzen bazaizu, pilotariak hitz egiteko aukera eta eskubidea duela uste dut. Jokatzeko gaudela? Bai, baina gure iritzia ere eman dezakegu, oker egon arren. Haserretzeko eta

Pozik

“Oso pozik nago bizitako guztiarekin. Ezin diot pilotari gehiago eskatu, dena eman dit: txikitatik izandako ilusioa ogibide bihurtu dut. Porrotak izan dira, gaizki pasatako uneak, jokoak okerrago aritutako garaiak... baina balantzan jarrita, dudarik gabe positiboa da emaitza”.

erratzeko eskubidea dugu, beti ere errespetuaren barruan eta inor iraindu gabe. Une horretan horrela sentitu nuen eta hala bota nuen.

Pilota enpresak hainbatetan kiroletik kanpo dauden interesen arabera mugitzen dira, hortaz?

Ez, ez. Bakoitzak bere egitekoak ditu. Gurea ahal bezainbeste entrenatzea eta ahal bezain ongi egotea da, partidua ahalik eta ondoen jokatzea. Pilota hautatzaileak bere egitekoa du, enpresak berea... baina gauza batzuek edo besteek iritzia eman dezakegu, besterik gabe.

Nahikoa dira bi enpresa (Aspe eta Asegarce), pilota profesionalarentzat?

Pilotari bezala, zenbat eta enpresa gehiago egon, guretzat orduan eta hobeto. Lehen pilotari profesional gehiago zeuden, baina enpresek jakingo dute zenbaterako eta zenbatentzako aukera dagoen, hor ez naiz sartuko.

Duela hiru urtetik Logroñon PPko zinegotzi izateak ere zeresana eman du. Sumatu al duzu frontoietan?

Ez, eman nahi izan nuen urratsa izan zen, enpresarekin hitz eginda eta adostuta eman nuen, eta ez dut arazorik izan. Ilusio handiz bizitzen ari naizen esperientzia da, eta Logroñoko Udalarari eta Asperi eskertu behar diet urte hauetan emandako laguntza. Afizioari dagokionez, iritzia emateko eta kritikatzeko eskubidea du, eta unerik batean kritikatuko zuten, baina orokorrean jendeak ez ditu bi jardunak nahastu, eta hala behar du. Gaizki jokatzegatik kritikatzeko, horrek kezkatuko ninduke.

Tira, nolabait pilotarien estereotipoa zabaldu duzu...

Bakoitzak gure pentsamoldea eta gure helburuak ditugu bizitzan, kirolaria ezin da bizitza guztian kirolera dedikatu eta norberaren ilusioekin lotuta dauden atak irekitzen badizkizute, ondo dago probatzea. Baina ez dut estereotipoak apurtzeko egin; pilotariak frontoian dena ematen badu eta duen kontratua betetzen badu, beste gauza batzuk egin ditzake.

Nola ikusten duzu harrobia?

Aurrean nahiz atzean aukera handiak dituzten gazteak ikusten ditut. Pilotak bide hau jarraitu behar du, gazteei lagunduz, haurren eskolak bultzatuz... eta profesionaletan ere maila handiko gazteak daude. Etorkizun itxaropentsua ikusten diot pilotari eta ziur naiz harrobia oso ona mantenduko dela. ■

